

Lujanbiotik Lujanbiora, nondik nora kanbioa

De Lujanbio a Lujanbio.
La transformación en el cambio

From Lujanbio to Lujanbio.
The transformation of change

Larraitz Ariznabarreta*

RESUMEN LABURPENA ABSTRACT

Este artículo refleja la evolución del bertsolarismo desde 1936 hasta la actualidad. A través del análisis de las diferentes funciones que el *arte de la improvisación* ha cumplido en el País Vasco, se examinan los cambios más significativos sufridos en los roles sociales y culturales de la improvisación: el camino desde la práctica tradicional básica del canto de versos (*bertsogintza*) al exitoso movimiento social contemporáneo que ha surgido alrededor de esta actividad (*bertsolaritza*). Es en este contexto en el que se analiza el papel –pasivo y activo– jugado por las mujeres bertsolaris.

Artikulu honek gogoeta egiten du bertsogintzak 1936tik gaur arte bete dituen funtzioen inguruan. Funtzio horien aldian aldiko agerraldietatik aztertzen da zein izan diren aldaketa nabarmenenak bertsoen artearen betekizun sozial eta kulturaletan: zer bide egin den bertsoak sortzearen herri-jarduera biluziaren praktikatik (bertsogintza) jardueraren inguruan eratu den mugimendu sozial hain arrakastatsura (bertsolaritza). Testuinguru horretan aztertzen dira, besteak beste, garaien eta ikusmoldeen bilakabidearen adierazgarri berezi modura, tradizionalki bertsoetan zirigai izan diren emakumeen irudikapenak, eta, kontrastean, azkenaldian generoaren gaiak irabaziz joan den presentzia.

The article reflects on the evolution of *bertsolaritza* [Basque improvisational singing] from 1936 to the present. Through the analysis of the different functions the *art of improvisation* has fulfilled in the Basque Country, the author examines the most significant changes undergone by the social and cultural roles of improvisation: the path from the traditional bare practice of verse singing (*bertsogintza*) to the contemporary successful social movement spinning around the activity (*bertsolaritza*). It is in this context that the role –passive and active– played by women improvisers is examined.

PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Bertsolarismo tradicional; bertsolarismo moderno; mujeres bertsolaris.
Bertsogintza tradizionala; bertsolaritza modernoa; emakume bertsolariak; generoa bertsoetan.
†Taditional bertsolaritza; modern bertsolaritza; women improvisers.

* Center for Basque Studies (Reno, Nevada)
lariznabarreta@unr.edu

Fecha de recepción/Harrera data: 28-07-2020
Fecha de aceptación/Onartze data: 23-10-2020

Salan ez daukat ezer askorik;
iya ustu zait ganbara:
nere bertsuak aituxe dira,
orain gaztien txanda da.

Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, 1936

Une egokia dirudi honek edonolako balantzeak egiteko. Izurri gaitzak hartu duenetik planeta osoa, gelditzera egin behar izan dute hainbat ekintza askotarikok, kutsatzeko arriskua murriztu edo atzeratu beharrez, eta horrek zuzen-zuzenean eragin die, besteak beste, jendaurreko zein jendarteko bertso-jardunei eta, haiekin batera, bertsolaritzaren inguruko mugimendu guztiari. Izurriteak zenbat eta nola iraungo duten, eta itxialdi orokorretik eta egokitzeko estrategietatik zer aterako den, geroak esango du. Guk, hemen, 2020 urte izurritu honetaraino bertsolaritzak (haren izaerak berak?) izan duen bilakabidea aztergai harturik, saiatuko gara zentzu bat ematen aldaketei, eta ahalbait lotzen garaian garaiko gizarte-testuinguruari.

Gogoeta egin nahi dugu bertsogintzak 1936tik gaur arte bete dituen funtzioen inguruan. Funtzio horiek aztertuz saiatuko gara zehazten zein izan diren aldaketa nabarmenenak bertsoen *artearen* betekizun sozial eta kulturaletan: zein bide egon den bertsoak sortzearen herri-jarduera biluziaren praktikatik (bertsogintza) jardueraren beraren inguruan eratu den mugimendu sozial hain arrakastatsura (bertsolaritza). Bestela esanda, nola aldatu diren kontuak Xenpelarren harako “debalde festa preparatzen det” hartatik azken txapelketek –besteak beste– betetzen duten “auto-ospakuntza” funtzio talde-egituratzaile ia *mitiko-sakratura*. Testuinguru horretan aztertuko dira, esate baterako, *zirigai* izan diren emakumeen aipua, eta, kontrastean, azkenaldian generoaren gaiak hartu duen erreferentziazko lekua.

1. BERTSOGINTZATIK BERTSOLARITZARA*. SARRERA

Bertsogintza bizitzako elementu izatetik apaingarri huts izatera pasatu zela zioen Antonio Zavalak *Voicing the Moment* liburuaren aitzinsolasean. Gizarteak ezagutu dituen aldaketez kexu, herri poesiaren “benetakotasun”aren galera salatu zuen, eta mundu-ikuskera baten testuinguruan aztertu kontua.

I referred earlier to the change the world has undergone. I am in the habit of saying that the environment in which today’s older people were raised, especially those from the countryside, looked more like the Middle Ages than the information era in which their grandchildren are growing up. Between these two generations there’s more distance than there was between many generations earlier. Yet this mutation doesn’t just affect

* Termino bikote horren kategorizaziorako, ikus Sarasua (2005:319).

the circumstances, but also the very essence of things. I at least can verify that, after almost fifty years of dedication to the matter, this has changed to the point of being totally different. In other words, I see now that the mentality with which one creates and receives popular literature is different. (2005: 18)

Zavalaren nostalgiatik eta tonu apokaliptikotik urrun, Retortillo eta Aierdiren (2007: 20) iritziz, “bertsolaritzaren arrakasta aldaketan datza, ez bere ‘purutasunean’”¹. Zentzu horretan, bertsogintzaren lorpen nagusia izan da modernitatearen ezaugarriak hausturarik gabe bere egiteko gaitasuna. Gaitasun hori berezkoa du bertsolaritzak, “komunikazio ekintza” izanik, botere-harremanen aldaketen testuinguruan aztertzen dute ikerlariok ahozketasunaren eboluzioa. Haien ustez, Bertsolaritzak “kultura global garaikidearen baliabide/tresna guztiak ditu garaiotara egokitzeko, eta, egun, etengabeko adaptazio baten baitan baino ezin ulertu daiteke”². Hain zuzen, euskal gizartean bertsolaritzak lortu duen posizio hegemonikoari esker, elkarren osagarri dira bertsogintzari buruz gizartean dauden askotariko ikuspegiak (tradizioa/herri-kultura/arteak). Era berean, pribilegiozko posizio horrek ahalbidetu du iraganarekiko hausturarik gabeko kontinuuma.

For all these reasons, *bertsolaris* are very highly valued. They receive hardly any criticism, in fact quite the opposite – the public emphasize their transmission of skill from one generation to the next, their intellectual abilities, and their creative talents. (...). Their sphere of influence is not confined to *bertsolaritza*. They have honed their intellects and, within, Basque Culture, they have become a strategic group with benchmark status. All in all, the *bertsolari* is an intellectual who has formed a close dialectical relationship which the society he or she is a part (...). Retortillo eta Aierdi (2007:21)

Zavalak aurea hartzen dio berehala gainera etorriko zaion kritikari: bai, museoan ikusten du bertsolaritza tradizionala. Haren ikuspegitik, ordea, berdin erraza da Retortillo eta Aierdirena kritikatzeko: arrakasta soziologikoa ez da hor kontua, eta pentsa daiteke (bertutetzat) aipatzen den *modernotze* kupidagabe horrek ez ote duen berekin eraman bertsogintza tradizionalaren *esentziaren* puska handi bat, gizartearen eta kulturaren oralitatearekin batera.

1 Sarasuak (2007:41) berdin uste du: “The bertsolaritza movement does not hold all characteristics of mass culture contemptible, nor does it demand that the idealized characteristics of bertsolaritza have to be maintained”.

2 Aldaketa honen arrazoen artean Garziak (2007a: 79) honakoak aipatzen ditu: ahozko kulturaren prestigioatzea (akademia), Euskaltzaindiaren rola (estandarizazioa eta lidergoa), komunikabideen garatzea (hedapena), bertsozale elkarteen sorrera (antolaketa-estrukturaztea), bertso gaien, bertsolari gazte unibertsitarioen presentzia, eta emakume bertsolarien (ber)agerraldia, erreferentzialtasun eta guzti.

Kontrajarriak diruditen bi ikusmolde horiek, beharbada, ez dira hain kontraesankor, baldin eta bertsolaritza hitzak biltzen duen fenomeno zabalaren alderdi askotarikoak xehakutzen eta bereizten hasten bagara. Esate baterako, eta abiapuntu gisa, Zavalak ez du inola ere ukatzen nola edo halako bertsozaleatasunaren arrakasta soziologiko egundokoa, eta Aierdik ez du ezkututzen bertsokeraren eraldaketa nabarmena.

Hala, aldaketa gertatu gertatu dela inork ukatzen ez duelarik, kontua da (eta horretara goaz gu hemen) ea zer den eta zer ez den aldatu (areagotu, bidean galdu, eraberritu...) modernotze horretan. Horretarako, bertso(lari)aren definizio bat behar dugu, eta, batez ere, bertsoak bete izan dituen eta betetzen dituen *funtzioen* panoramika bat, ahalik eta xehean eta zehatzena, funtzio horietariko bakoitzak izan duen bilakabidea ikusiz irudi argi samar bat osatzeko moduan egongo bagara eta orokortasun lausotik aterako. Hala jokatu, esperantza dugu, irudi zehatzago hori eraikitzen saiatu, nolabaiteko adostasunera ekar ditzakegula kontrakor diruditen zenbait iritzi ere.

2. ZERTAN ARI DEN BERTSOTAN ARI DENA. BERTSOLARIA BAT-BATEKOAN ETA IDATZIAN

2.1 Definizioa, ezaugarriak, funtzioak

Xabier Payak (2013: 27) baieztapen honetatik abiatzen du bertsolaritzaren kategorizazioa:

Bertsolaria (...) jende aurrean bat-batean jarduten duen abeslaria da, bertso paperak egiten dituen pertsona ez da bertsolaritzat jotzen, haren lanak testualki behintzat kalitate handiagokoak izanagatik, eta “bertso-jartzaile” esaten zaio. Bereizketa horrek iradoki lezake bertsolaria ez duela jarduerak egiten, jarduteko gaitasunak –eta hein batean, aparteko gaitasunak– baizik.

Definizio orokor horrekin bat eginik ere (baina gero, berehala, *bertso-jartzailea*, izenak izen, Payak hor jaurti duen leihotxotik ez baizik ate nagusitik sar litekeelarik trankil asko), bada aurretik auzi bat gure ikerketa honen helburuekin lotua, Garziak (2007b:145) *eten larria* deritzona³: poesia idatziaren eta ahozkoaren zatiketa kategoriko(egi)a. Bat gatoz Garziarekin –eta hark aipatzen duen Foleyren iritziarekin: alegia, eten bat ez baizik continuum bat irudikatu behar dela bi taxonomien artean; auzia egoki aztertzekotan, behintzat. Beraz, ahozko poesiatik idatzira egiten den bidea “ildoberekotasun” moduan ulertuko dugu hemen, Garziaren (2007b:145) beraren hitzak baliatuz: “a progressive grading of phenomena and manifestations of differing degrees of orality, in which much overlapping between genres and a fair degree of fusion between orality and writing”.

³ “Great Divide” ingelesez. Terminoaren itzulpena gurea da.

Beste nahasbide edo gutxienez lausotasun bat zor zaio, itxura denez, *ahozkotasun* hitzaren anbiguotasunari. Izan ere, euskaraz askotan bezala, hitzaren osaerak adierazten duen esanahi literal horretan, ez da arazorik terminoarekin. Ahoz emanari dagokio, idatziz emanarekiko oposizioan. Kontua da, hala ere, badela beste kontzeptu bat, termino berezi bat eskatuko lukeena, eta zerbait ahoz gertatze hutsarekin lotzen dena sarritan: *oralitatea*. Zentzu kontzeptual espezializatu horretan, idatzira aldatu gabeko gizatalde baten kultura-egoera adierazten du terminoak. Alegia, hasteko, ahozko edozein jarduera ez dagokio oralitateari; izan ere, bistakoa da kultura idatzi garatuenetan ere (hots, oralitateetik guztiz urrundu direnetan) pisu handia duela betiere ahozkotasunak (idatzitik pasatua izan –ikus-entzunezkoak– zein espontaneoak).

Hala ikusirik, bada, bi hipotesirekin hel dakioko, teorian, bertsolaritza modernoaren bilakaerari (jakintzat jorik aspalditxotik ez garela gehien-gehienok bizi oralitateak oraturiko giza ingurune batean):

a) Oraingo bertsogintzak gorde egiten du (zinezko) oralitatearen puska edo pixka bat.

b) Oraingo bertsogintzak antzeratu egiten du (inoizko) oralitate galduaren aztarna bat.

Kasu bietan ere, beste gauza bat dugu bertsolaritza modernoaren oralitatearen garaiko bertsogintzarekin alderaturik, eta ez barne-bilakaera arrunt bat. Bigarren kasuan, oralitateko jardueraren *performance* bat dugu, eta ez jarduera hura bera. Alegia, herri-kirol direlakoek haien oinarriko lan-jarduerekin dutenaren antzeko erlazioa lukete oraingo bertsolaritzak eta oralitateko bertsogintzak. Horren haritik, birformula daiteke bertsolariaz Payak eman duen definizioa bera, bitan banaturik:

- Oralitate-munduko bertsolaria: bertsoak funtzio jakin batekin nonahi inprobisatzen zituena (gero nola jasoko diren gorabehera).
- Idazkuntza-munduko bertsolaria: bertsoak inprobisatzeko *arte* edo *habilitate* hori publiko jakin baten aurrean ikuskari berezi modura erakusten duena.

Ikuspegi horren arabera, bertso-paperak eta bertso-jartzaileak ez dira anomalia bat oralitatean, ezinbeste tekniko bat baizik: ez dago beste erregistro-modurik papera baino, entzule bakoitzaren memoriatik harago.

Horrela begiratuta, oralitatean, bertsogintza bakarraren bi aurpegiak baino ez dira bat-batekoa eta idatzia. Oralitate-garaian, bat-bateko bertsolari gehienak bertso-jartzaile ere baziren, eta ez dirudi asko direnik bertso-papergile izan direnak aho-bertsolari izan gabe. Horretan ere, bada aldea idazkuntza-garaiko bertsolariekiko, oso gutxi baitira bertso-jartzaile ere, eta, batez ere (iritzi orokor hau ematea zilegi bada), idatzian inolako hobekuntza ageri dutenak (are gutxiago klasikoen bikaintasunik). Hutsune edo eskastasun hori nekez egotz dakioko

oraingo bertsolarien gaitasun edo prestakuntza faltari, ezta gutxiagorik ere. Zer orduan? Ez ote dago hor aurreko bertsolariek oralitate-munduan beren bertsoak diktatzean bizi ez zuten tirabira bat, inprobisatzaile/idazle jardueren artean? Izan ere, Garziaren (2007b: 147) ustez egungo bertsolariek eta idazleek darabiltzaten kategoria mentalak oso dira antzekoak. Beharbada, horrexek esplika dezake –dio Garziak– zergatik diren hain ugari eta arrakastatsuak zutabegile diharduten bertsolariak.

Kontuak kontu, (ia) *soilik* bat-batean aritzea da, alde formal horretatik, oraingo bertsolaria bertsogile tradizionaletik bereizten duena. Idazkuntza-garai honetan, idazten jarri zero, literatura espero du hartzaileak; bertso-paperen erosleak bazekien bertsoak baino ez zirela, jartzailearen kantutik jasoak berak kanta zitzan.

Bertso-paperen eta bat-batekoen artean bereiztean, eskuarki, inprobisazioaren/lanketaren bai/eza izaten da hizpide (Aulestia 1995:21; Zulaika 1988: 219; White 2001:13), baina bada beste zerbait hain sarri aipaturik ikusten ez dena⁴: idatziaren *distantziak* nola ematen duen aukera bertsogile materialaren (bertsolariaren) eta bertsoetan mintzo den pertsona(i)aren arteko banaketa gerta dadin. Joseba Zulaikak (2005: 242) maisukiro dakar hizpidera kontua, bere aita zenaren bertsozaletasunaz ari dela:

While singing *bertsoak* he could pretend to be or to do anything, to lie humorously and even become anybody else's experience and song. But there was no danger that such exercises in song would deprive him from the literal structures of his day to day use of language. In no way was he in danger of falling into the delusional aspects of my all too literary world. Yes, he could use language performatively and for mere pleasure, but he would mark the step into this context of *bertsoak* and humor by a clear demeanor of shyness or postured bravado while singing a song or telling a story. In a culture of writing, on the other hand, the distinctions between language as seduction and performance, and language as plain commitment or truth, can be far more obscure.

Kasurik sinpleenean, bertsoak jartzeko eskatu duenaren eta jartzen dituenaren artean berezi behar da. Kasu horretan, bertso-papera apailatzen duenak rol bat antzetzu behar du, beste norbaiten itxura pean, txapelketan gertatuko den gisatsuan; laxoago, hala ere, hango baldintza esturik gabea: idazle(en egoeran) da hor bertsolaria. Jakina, traba zein lagungarri gerta daiteke distantziazte hori, kasuan-kasuan.

4 Garziaren (2007b:152) iruzkintxo bat besterik ez dugu aurkitu, aipatu berri dugun haren pasartearen testuinguruan: "We can say in conclusion, that the "distancing" that oral theory regards as exclusive to written literature is the prime characteristic of improvised bertso-laritzak as practiced since the 1980s: a distancing with respect to cultural/textual values, untouchable previously, but also in regard to other, more situational elements.

2.2. Bertsolariaren pertsona(i)a

Bada hor oinarri bat, edo parametro bat bederen, bertsolari bakoitza ezaugarritzeko: zenbaterainoko atxikimendua dion bere pertsona(i) ari, eta zenbateraino dabilen eroso besteren itxurak egiten. Ohartzekoa da, hala ere, nola *ofizio*-jartze ariketek lotura zuzenagoa duten, berez, halako bertso idatziekin, bat-bateko jardun espontaneoarekin baino.

Graduzko kontua da, baina Txirrita bat jar liteke polo batean, haren bertso askok beraren pertsonaia baitute testuinguruaren parte baztergaitza. Bertsolari gehienek dute noski beren pertsonaia jendearen aurrerako, baina bada alderik hari bertsoetan presentzia esplizitua emateko orduan. Mañukorta apenas den besterik ezer bere pertsonaia baino, eta Egaña, berriz, bere maskara ugariatzen barreiatu ageri da ia. Non eta, gai-emailek batera edo bestera ez duten behartzen bataren nahiz bestearen jardunbidea.

(Pertsonaia markatua ageri duten bertsolarien artean, bestalde, izango da gerora, denborarekin gero eta nabarmenago, *ereduzkotasan* bat erakutsi beharra *persona* gisa, bertsolariaren arketipotik aski urrundu. Berriro ere, Txirritatik Basarrira doan aldeak erakusten du eten hori; Txirritarekin leudeke sailkapen horretan Lazkao Txiki, Mattin, Peñagarikano, Mañukorta; Basarrirekin, berriz, aldiari aldiko eredu edo *beharbezalaketasuna* egokituz, Xalbador, Amuriza, Sarasua, Euzkitze, Arzalluz, Lujanbio).

Onartuko zaigu, gutxienez, badela hor tentsio bat aski nabarmena, txapelketak areagotu baino egiten ez duena: rol-jokoetarako, bertso-jarria hobe; bat-batean, beti dago presente *norbera*. Hona, adibide gisa, Gorka Erostarbek *Berria* egunkarian egindako elkarrizketan Nerea Ibartzabal bertsolari gazteak zer dioten tentsio horretaz eta sor ditzakeen katramilez:

Hor, niretzat, galdera da: har liteke pertsonaia gaizto baten papera, eta jendeak ondo ulertuko du hasi eta amaitu gaiztoaren diskurtsoa defenditzen baduzu? Berez, gai baten kritika egiteko modu perfektua litzateke hori, baina ulertuko du hori jendeak?

Hala ere, ez gara ari, interes handiko falazia arrunta izaki berez, entzule mota baten gaizki-ulertzeaz eta horrek bertsolariari sortzen dion zalantzabideaz: zinez murgildu *ofizio*ko rol desatseginen, arriskua izanik *neure iritzia* ematen ari naizela pentsa dezaten; alegia, antzezten dudan pertsonaia *neu* naizela?

Ikuspegi desberdin eta are kontrajarrien mozorro-dantza horren panoramari, bere aletxo gehitzen dio Sarasuak (2007:39), bertsolariaren beraren *barneko* pentsamendu zatituari dagokiona (pertsonala/soziala): “The originality of improvisation arises from that mixture (...) characterized by rumination on social and personal information”.

2.3. Bertso(lari)aren funtzioak

Ez da hori, hala ere, txapelketaren mekanikak eragiten duen halako katramila, nahasbide edo endredu bakarra. Bertsolaritzak betetzen dituen funtzio askotarikoez galdeginik, honela erantzun zion Jon Maia bertsolariak Erostarbe kazetariari:

Batzuetan gara kronistak, besteetan bufoiak, ilusionistak batzuetan, iritzi emailak, sortzaileak...(…) Historikoki bota izan diren bertsoak aztertuz gero, Euskal Herriaren historiaren laburpen bat egin ahal izango litzateke nahiko objektiboa eta nahiko zehatza. Neurri horretan, nik uste dut kronistak bagarela. Bizi garen munduari kantatzen diogu, eta batez ere, mundu horretan bizi diren euskaldunei. Mundu globala euskaraz deskribatzen dugu. Kronistak ere bagara, baina esan behar dugun hori etengabe sortu behar dugu.

Izan ere, paratuko bagenu zerrenda batean bertsolari(tz)ari egotzi ohi/ izan zaizkion funtzio ugari askotarikoak, zera bistaratuko luke horrek: gainerakoetan bezala, bertsolaritzan ere, Wittgenstein-ek eta enparauk erakutsi bezala, hitzaren esanahia haren *erabilerak gauzatzen* duela. Besteak beste, honako funtzio eta betekizun hauek datoz burura zurrustan:

Kronika: eguneroko gorabeherak, kezka sozialak, historia zahar nahiz berria

Entretenimendua: umorea, txantxa eta jolasa, zirtoa, ziria eta ateraldia

Kirol(tasun)a: jokoa, dema, norgehiagoka, *hitzaren kirol nazionala*

Iritzia: ideologia, politika, besterik

Orakulua eta didaktika: herriaren sentipena, etorkizunaren aurreikuspena, gomendio-emate eta kargu-hartzeak

Gizatasuna: errespetua, egokitasuna, elkartasuna

Hizkuntza-eredua: egoki, bizi, dotore (batu?), fresko (euskalki(-kutsu)?)

Literatura eta artea: herri-senekoa, jaso (samar) itxura, lirikoa, epikoa, dramatikoa

Pertsonaren espresioa eta pertsonaiaren proiektzioa: serio, umoretsu, jator, militante edo, gutxienez, aktibista, looka

2.4. Nork sortua da bertsoa?: gai emailearen partea

Auxe(n) da lan/gai polita
 orain neregana
 alboko lagunandik
 etorri/iritxi zaidana;
 bertsoak bota bear
 dira irubana;
 ortan emango nuke
 nik naitasun dana:
 beste ze esanik ezta
 esatian “ama”.

Manuel Olaizola *Uztapide*, 1962

Bertsolaria sortzaile den aldetik (hots, *poeta*, jatorrizko zentzu peto-petoan)⁵, haren lehen eginkizuna *inventio* delakoa da, hots, *etorriaz* baliatzea. Asmamen hori, ez noski hutsetik, baizik eta munduarekiko bere harreman propiotik aterea du sortzaile petoak zuzenean. Besteak beste, eta aurrenik, gaiak aukeratzea du lehen urrats guztiz oinarritzkoa. Txapelketan, ordea, egina ematen diote funtsezko lan hori: berari *etorriaren* lekuan, inork *ipinia*.

Gero, irudimena erabili behar izaten du sortzaileak dena delako gaiaren *dispositio* delakoa –hots, botako duen alearen antolaera– maila guztietan erabakitzeko. Maila horietatik asko, baina, gehienbat aurrez finkatuak dira txapelketako ariketan, gaiekin batera, antzezpen bateko gidoi zehatz baten erudian: egoerak, pertsonaiak, ikuspegiak, molde erretorikoa (bakarrizketa, elkarrizketa, puntukako segida...) eta, are, ahapaldi mota!⁶

Hala, bertso-sortzailearen egiazko sorketa, oro har, hirugarren urratsean hasten da txapelketan: *elocutio* delakoan, hots, hein handian jada asmatu eta antolatua denari *taxua* eta *ahotsa ematean* (harekin batera doaz *memoria* eta *actio* direlakoak: *performance* osoa).

Inork ezarritakoari (asmatu eta antolatuari) ahal den ondoen *erantzutea* da, beraz, soilik ez bada gehienbat, bertsolariak txapelketan bere kargu duen *sortzea*. Horrela ikusita, guztiz urruti geratzen da

⁵ Aulestiak (1995:19) bertsolariari olerkari (poeta) kategoria hori ukatzen badio ere, gaur lausoago ageriko lirateke taxonomiok.

⁶ Diogunaren adibide nabarmena dugu, besteak beste, 2010-12-26an Gipuzkoako Ibarra Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio txapelaren tirabiraz jardun (behar izan) zutenekoa (ia minutu bat gai-istorioa ematen).

bertsolariaren irudia eta rola irudimen kolektiboan oraintsu arte izan duenetik, hots, harako *debalde festa preparatzen det gogoa dedan orduan* hartatik. Eta ez da kontu guztia, horratx, (debaldeko gogoaren) *jolasetik* (sari-lehiara bilduen) *jokora* dagoen aldeari dagokiona, bistan denez: sormena bera dago hor auzitan (paradoxa: gai-jartzaileak ere ez nolana hiko sortzailatzat jo behar)⁷.

Bestalde, mirarizko etorri mitiko-edo bati esker *herriaren ahotsa* izatearen kontua ere asko erlatibizatu behar da hor, ez baita ari guztiz bere baitatik bertsolaria, jatorren eta inspiratuena izanik ere. Balio beza adibidetzat Onintza Enbeitak Gorka Erostarberi *Berrian* egindako aitortzak:⁸

Zenbat aldiz botako genituen gauza oso potoloak baina ezer esan gabe, eta zure barruan dagoen nahaste-borraste hori guztia azaleratu gabe.

Aieru modura, ez dirudi gehiegikeria pentsatzea gurasokeria modu bat dagoela jatorriz horren atzean: Berpizkundearen garaian, Aitzolek-eta plus bat eman nahi zioten bertsolaritzari, eta, bertsolariak beren kabuz gauza ez zirela etsita (eta publikoa ere pizte aldera noski), lanaren puska bat berek eginda ematea pentsatu zuten. Gerora, hausnarketa luzeak egin dira ea *zer* eta *nola* ematea komeni zen, baina auzitan jartzeke noski gai-jartzearen kontua bera (bidenabar, bertsoz bertsoko puntu-kontularitzak ere bere horretan dirau, zenbait kirolen eredu betean, irizpideak zorrozteko ahaleginak gorabehera).

Nork du sortzen –asmatzen, egiten– bertsoa txapelketan? Besteak beste hauek kontuan izanik, alegia: ariketen antolamendua (erretorika baldintzatuz) eta gai zehatzak ematea (edukia bideratuz); epaileen itzal zorrotza (katexima eta guzti, nortasuna nortasun) eta publikoa, presentzia eta mamuz presio eginez *bere* (bakoitzaren) gustua betetzeko...

Jakina, txapelketaz kanpoko saioekin alderaturik, epaileak bai/ez da konturik behinena, baina beste alde guztietatik ere bada alderik, graduz bada ere: dena da laxoago; txapelketaren ezaugarri nabarmenatariko bat, izan ere, *estura* da, ia zeinahi zentzutan harturik hitza.

Ikuspegi horretatik, esan daiteke bertsolari-eredu bat taxutuz joan dela bertso gintzaren bilakabidea, eta gizartearen (publikoa den haren zatiaren) eta bertsolariaren arteko interfazearena egin duela txapelketak, gizarte-publiko horren ordezkari den unean uneko inteligentsiak *ekarri* (bildu eta taularatu) duen irudikapenaren bultzadaz. Bertsolariaren eginkizuna, hein handi batean, irudikapen nagusi hori beregan hezur-

7 Ondo begiratuta, “gai-jartzaile/emaile” terminoa oso labur eta eskas geratzen da, ez baitu behar bezala adierazten hark –edo/eta atzetik du(ke)en gai-prestatzaile taldeak– duen eginkizun hain erabakigarri hori.

8 Erostarbe (2018ko Otsailak 11).

mamitu eta publikoratzea izan da (ez dago ezer txarrik, garbi gera bedi, jendeari nahi duena ematean).

Taxutuz joan den bertsolari-ereduak jatortasuna eta bertuosismoa konbinatu nahi ditu. Bertuosismoa: bertsolari trebe, original eta teknika landukoa. Jatortasuna: bertsolari berezko, sentikor eta politikoki eta sozialki zuzen eta egokia (bere esparru ideologikoan).

Eta bai: bertsolaria diogu, eta ez bertso hutsa. Betidanik izan du nabarmentasun handia bertsolariak ageri duen *personaia* publikoak. Hori ere, nahasirik gerta daiteke txapelketan, aipatu dugun bezala, han jokarazitako pertsonaiarekiko gainezarketaz (talka edo zalantza eraginez).

Zentra gaitezen, hala ere, txapelgaiari uzten zaion eginbidearen estuan, horixe baitator orain harira.

3.1 Bi argazki

Garai jakinen isla direlakoan, bertsolaritzaren bi argazki ikonikotatik abiatuko gara hemen. Bata 1936. urtean egindakoa da, urtarrilaren 19an: Donostiako Victoria Eugenia antzokiaren aurrean, gerra piztu zen urteko Bertso Gudua ospatu aurretik. Argazkian denak dira gizonak, gehien-gehienak goitizenez ezagunak; irabazleak brusa darama soinean; beste guztiak jakaz ageri dira. Brusa du bereizgarri Txirritak, txapelarekin ageri dira denak eta. Badakigu, jakin, argazkian ageri direnak katoliko ortodoxoak zirela pentsaeraz, eta, haien euskararekiko atxikimendua alde batera utzita (eta antolatzaileen asmo politiko-kulturala gorabehera), politikatik urrun ikusten zutela beren burua, orduko gaiak eta bertsoak frogatzen behinen. Urte horretako gai jartzailea, aurreko urteko irabazlea: Inazio Eizmendi “Basarri”. Hogeigarren mendeko lehen txapelketa-aro horrek herri-usadioa kulturaren plazara ekartzea du helburu.

Bigarren argazkia 2009koa da, Maialen Lujanbiok lehen txapela irabazi ondorengoa: oholtzan ageri dira finalera heldu ziren bertsolariak, Lujanbio lehen planoan, emakume bakar: gure egunotako genero-ikur bat dirudi kasik. Ezizenak oso bakan; denak antzera ageri dira janzkeraz, eta adinean ere bertso: gazte, Sebastian Lizaso izanik zaharrena. Irabazlearena da ageri den txapel bakarra; *jeans* galtzak dituzte denek ere jantziak. Hogeitabatgarren mendeko txapelketa-aro horrek bertsolaritza mundu globalaren plazara egokitzea du helburu.

3.1.1 Lehen argazkia: Franko aldi

Gure lehen argazki horrek biltzen ditu, zabal bada ere, Joxerra Garziak (2007a: 82) *Isiltasun Aroa*, *Iraupen Aroa* eta *Erresistentzia*

3. AROKATZEA

Aroa modura izendatu zituen bi garaiak.⁹ *Franko aldi* izen pean bateratu ditugu guk hemen, sinplifikatze aldera.

Zenbait bertsolari-bikote kontrajarri nahiz osagarriren kateatze batera ekarrita irudika daiteke *Franko aldi* horren bilakabide orokorra, modu noski laxoan:

Txirrita eta Basarri

Arlote alfabetatu gabea kazetari jantziarekin aurrez aurre. Patziku Perurenak (Mazantini-1, “Basarri-rekin saiheska bertsolaritzari buruz”) bere erara iruzkindua du auzia.

Lehenik, *Basarriren* eta Lekuonaren iruzkinok dakartza hizpidera Perurenak:

Basarrik idatzia:

Gaurko bertsolariak, zorionez, badaki nun ari dan izketan eta baita nolatsu itzezin bear duen ere. Len, jende ikasia ta edukatua bertsolariengandik nundik igesiko ibiltzen zan. Gaur, berriz, bertsolarien atzetik dabil eta oiekin gozatzen du, beste edozeiñekin baño geiago. Jatetxe fiñ, plaza, teatro, zine-saloi ta abarretan, bertsolari jaiak antolatzen dira noiznai. Eleiz barrutan kantatzera ere iritxi dira gaurko bertsolariak.

Txirritak lehen Bertso Guduan (1935):

Larogei urte gañian dittut;
nago anketako miñez.
Donostiara etorria naiz
erren aundia egiñez.
Bi bastoiekin txit larri nabill,
pausorik eman eziñez.
Euskara ia aztu zait eta
erderarikan jakiñ ez:
maixu batekin eskolan laixter
asi bear det latiñez.

⁹ Garziak (2005:286) beste arokatze historiko bat ere erabili izan du, hemengo guretik hurbi-lago: 1. (1960-1973) *Homogeneous co-text* bertsolaritza 2. (1980-2000) *Heterogeneous co-text* bertsolaritza. Lehenengo aroaren ezaugarriak honako hauek dira Garziaren iritziz: balio eta erreferentzien aniztasuna, emozioak erreferentzia soilz sortzeko gaitasuna (arketipoak), entzulegoa “herri” moduan ulertzeko joera, testuaren garrantzi erlatiboa (errekurto testual gutxi, bertso laburrak), estilo formulaikoa, bertsolaritza sintetiko, ez analitiko: gaiarekiko distantzia eza. Bigarren aroaren ezaugarriak, berriz, honakoak: balio eta erreferentzia urriak eta arras partekatuak, erreferentzien bitartez emozioa sortzeko zailtasunak, entzulegoaren dibertsifikazioa, intentsitate testual handiagoa, bertso luzeagoak, formulen erlatibotasuna, eta analisirako joera: gaiarekiko distantzia.

Lekuona:

Gaia euskara zen. Bertsolariak euskara gora, euskara behera. Txirritak ez zuen gaia seriotan hartu. Eman zioten gaia hartu bai, baina komentario komiko batekin ateratzeko, zelebrequeria batekin.

Eta honatx, bere luzean laburturik, Perurenaren iritzi kritikoa, ageri gorrian utziz zer zen doxa berria (zimaurretik intzentsu egitea) eta nola *apailatu* zuen hura garaiko euskal inteligentsiak:

Nere uste apalez berriz, Basarrik bezain serio eta gainera askoz ere dotoreago bota zuen bertsoa Txirritak, eta umore eder batekin txapelketarako alde aurretik emana zegoen epaia salatuz gainera. Hain zuzen ere euskara jarri gaia, eta bere bizi guzian euskaraz besterik egin ez zuenari euskara mordoiloa erabiltzen zuela esaka zetorren burges taldetxo hari bai ederki bota ere muturrera: maixu batekin eskolan laixter asi biar det latinez...

Txirritaren bertso bikain horrek, bere umore ironiko hagitz finarekin, txapelketa hartako alderdi ezkutua salatzen du nere iduriko, eta ondorengo Basarriren honek berriz, disfrazatuta zetorren alderdi zuria. Halare, ni harritzen nauena zera da: Txirritak salatzen duen alderdi horri, geroztik inortxok ere ez heltzea; hori ezkutatu, eta denak Basarriren alabantza zuria egitea! Horretxek harritzen nau!

[...] Gezurra lirudike, eta askok ez du hala ikusi nahiko ere, baina, neretzako garbi dago: beste kultur adierazpide asko bezalaxe nazionalismo jeltzaleak desbirtuatu zuen bertsolaritzaren grazi guzia. Eta hor gelditzen dira testigutzat, alde batetik, Basarriren aurreneko txapela eta bertsolaritzarekin deus ikusi gutxi duen goi mailako prestutasun folklorikoa, eta Txirritak botatako bertso zoragarria, ironia fin batekin, jarri zioten gaia eta orduko azpilana batera jasotzen dituen.

[...] Azpilan haren errezelo txarrak egiten zituenik ere ez zen faltako, baina, jeneralean, herrixketako bertsolari sail haundi batek, «damu dut hain mingaintzikin eta edukaziogabeko izana» aitortuko zuen, eta Basarriren gizalegezko ahots zuri gozo haren aurrean belaunikatu bezela eginen zen bertsolari sail alproja hura, bakoitzak bere etxean, eguerdiero bazkalorduan «Aitaren hitza» aditzekoan, esanez bezala barrendik: «Arrazoi duk Basarri, hi gizon prestua haiz; gu berriz, nekazari narratz batzuk besterik ez».

Hala bide zen orduko apaiz talde haren ustea: «zenbat eta gizonago, orduan eta bertsolariago». Baina, Basarri buru jarri zuen apaiz talde hark ez bezala, herri erneak ongi daki gizontasun prestuak deus ikusteko gutxi duela, bai bertsolari onekin, eta baita historiak eman dituen beste artista on gehientsunekin ere.

Orduantxe ateratzen da bertsolaritza bere girotik eta lekutik, eta herri literatura goi mailako hiri literatur bihurtu nahi garbia nabari da talde haren asmoetan. Ospakizuna bera, aurreneko Bertsolari Eguna izanen zena, ez baitzen nonahi egin, Donostiako Victoria Eugenia baizik. Beraz, lekuak berak, franko adierazten digu. Gero, aurreneko txapelketa izatea ere, ez da ahazteko. Nere lagun batek esaten duen bezala, herri honetako kultur adierazpide herritar guziak, hain zuzen ere, aurreneko txapelketarekin hasten bait dira hondatzen, beren giro naturaletik ateratzen eta izorratzen.

Aitzolek eta Eusko Folkloreko talde bertsozale hark, bertsolaritza bere herri giroan indarberritu izan balu, nik ez nuke gaur deus esatekorik. Baina, bertsolaritza, herri literatura zela jakinik, eta mundu guzian bezalaxe bere herri giroan bizitzeko eta hiltzeko sortua zela ikusirik, neurriz gaineko balioa eman eta gure literatur adierazpiderik prestuena, gizalegetuena eta hiritarrena bihurtu nahi hartan huts egin zuen talde hark. Eta bistan da, huts hark egindako zuloa gero eta haundiagotzen joan dela geroztik.

Horraino Perurena. Beroarena kenduta, eta *mutatis mutandis*, Zavalaren eta besteren iritziarekin bat dator goizuetarra.

Basarri eta Uztapide

Baserritar kaletartuaren eta baserritar peto-petoaren arteko kontrastea. Uztapide, ahots eder eta planta bikainez, bertsolaritzako Poulidor, beti bigarren Basarriren itzalean.

Uztapide eta Xalbador

Baserri-gizarteko prosa vs. artzain poetaren mendi-bakardadeko lirika. Uztapideren gipuzkera *normalari* Xalbadorren baxenafarrera *exotikoa* kontrajartzen zaio, publikoak ulergaitzez gaitzetsia zein bestetasunez miretsia. Urepelekoa, Txapel gabea izanagatik, garaian –eta, batez ere, gerora– ohore-sonarik handiena lortutakoa, bertso idatziak barne.

Lazkao Txiki eta Lasarte

Ezin ditugu ahaztu Txapelik gabeko halako zenbait figura; eta, berdin, garaiko kanonetatik bazterrean geratuak: Urolaldeko koadrila bikaina, besteak beste. Ixiar eta Estitxu Eizagirrek *Argian* Manuel Lasarteri egindako elkarriketan honela zion Leitzakoak:¹⁰

¹⁰ 2001ko Apirilak 1

Bakoitza zerbaitetarako jaio da eta ni ez nintzen eskolarako jaio. Nik ez dut sekula irakurri, eta sekula ez dut liburu bat izan. Basarrik esaten zuen harentzat denbora pasatzeko lagunik onena liburu bat zela. Ni bertso liburu bat sekula izan gabea naiz. Ez ditut neronek egindakoak ere irakurri liburuan. Badakit gutxi gorabehera zer jarrita dagoen, eta horrekin pozik. Lana izan da nire bizitzako eskola.

Hala, nolabait, beste guztiekiko kontrastean ageri zaigu 1935eko txapelketako irabazle kultua: Inazio Eizmendi Manterola, Basarri.

3.1.2 Bigarren argazkia: Franko ondoren

Gure bigarren argazki horrek irudi nabarmen desberdina islatzen du, ez soilik erakusten duelako emakumeen arrakasta –sinbolikoa eta partziala nahi bada–; baizik eta argazki hori har daitekeelako 1980tik aurrerako bertsolaritzan gertatutako aldaketan sinbolotzat: bertsolari tradizionala gero eta baztertuago, kasik desagertzeraino, geratuz joango den aroaren sinbolotzat, alegia.

Bi argazkien artean, hainbat aldaketa tekniko eta kultural gertatu dira gizartearen; besteak beste, kantaldien loraldiarekin batera, grabazioak, eta bereziki, Lete, Valderde eta Lekuonak bertso zaharrekin apailaturiko diskoak, belaunaldi berrietarako transmisio-lana bikain egingo dutenak, eta zerikusi handia dutenak, zalantzarik gabe, bertsozaletasunaren piztueran. Horra hor bertso-jarriak berriro rol nagusi bat jokatzen bat-batekoa bizi arazten ere.

Irudia eta lotutako metafora bistaratze aldera, aurreko argazkiarekin egin dugun moduan, ekar ditzagun nola-halako bikotetara 1980-2001 urte-bitarte horretako bertsolari adierazgarri batzuk:

Xalbador eta Amuriza

Artzain lirikoa vs apaiz (preso) ohi eleberrigile eta olerkari epikoa. Amurizaren ildo ideologiko beretik ari dira ordurako bertsotan, besteak beste, Lopategi eta Enbeita. Xalbadorren tradizio klasikotik harago, iraultza formala dakar Amurizak: figura estilistikoak ugalduko eta aberastuko ditu, eta literaturatasun formala areagotuko; errima-jokoak sofistikatu; neurri eta doinu berriak asmatu. Xalbadorren euskalki markatutik urrun, Amurizarena euskara batu garbia. Teorizazioa ere badakar Amurizak: bertsolaritza “hitzaren kirol nazionala” izango da haren izendapenez. Hiru hitzotatik bakoitza da adierazgarria, eta atzekoz aurrera ekingo diegu. *Nazional*: txapelketa auto-ospakuntzazko masa-erritua gero eta arrakasta handiagokoa bilakatuz joango da. *Kirol*: bertsoen atleta, gimnasta edo akrobatak *entrenamendua* behar du, *ariketak* ondo egiteko eta *puntuazio* ona jasotzeko *epaileengandik*. *Hitz*: bertsolariak eskura izango ditu errima-zerrendak, haiekin serio

jolastuz jokorako prestatuz joan dadin. Gero, oholtzan, gai-jartzaileak emango dizkio bereak, gero eta ugari eta asmotsuagoak.

Amuriza eta Sarasua

Jon Sarasuak Goikolearen eskola praktika gehituko dio Amurizaren teorizazioari. Nabarmenduz doa bertso-eskolen presentzia eta garrantzia, eta, transmisio modu horrekin batera, idatziaren makulua eta gazteen presentzia areagotuz. Joko/jolas eztabaida zabaltzen da; baina askok eta askotarikoek parte hartuagatik eztabaida teorikoan, ia aho batekoa da erantzuna: jolasa ondo dago (haurrentzat batik bat), baina, kirolak eredu noski, jokoa da nagusi bertsolaritzan. Neurketaren ikuspegia nagusitze horren testuinguruan, ez da harrizkeoa txikitatik bertso-jolasean murgildurik ibilitako norbait izatea, txapelak txapel, bontzo-keinu batez immolatuko dena. Hala interpreta liteke Sarasuaren *bertanbeheratze* dramatikoa: *beharbezalakotasunaren* martirioa lehiaren –eta gaitz handi-txiki guztien– aurka. Katolikotasunaren berraragiztatze laiko horren ildotik, abian da jada Amurizaren aldari politiko ia hutsaren esparru estua zabaldu eta eredu(garritasun) sozial –eta pertsonal– orokorrago, *holistiko* halako bat bertsoetaratzeko bidea, gaurdaino garatuz joan dena.

Sarasua eta Euzkitze

Euzkitze sarkin modura agertu zen bertso-eskola-umeen artera. Urolako (bertso) eskolako kimu jantzia (euskara batu dotore eta guzti), aurreko tradizio guztien ezagule. Maila bikainaren aitortza formal guztien gaintik (edo azpitik), bertso-munduko *kofradia* ideologiko hegemonikoaren monopolio gero eta handiagoa tarteko, boikoteatua eta, itxura batean, alde egiteraino nazkatua.

Euzkitze eta Sebastian Lizaso

Sebastian Lizaso: Euzkitze baino bertso-eskola formaletatik are urrunago, taberna-giroan trebatua. Joxe aitaren, Joxe Agirre *Orandaren* eta Imanol Lazkanoren kasta; Urolako eskolaren ondorengo eta ordezkari belaunaldi gazteagoan: bertsogintza tradizional(ago)aren agur-txapela.

Sebastian Lizaso eta Egaña

Bertsolagun-bikote sinbiotikoa osatzen dute bi bertsolariek: Uztapide-Baserri ereduaz plazaz plaza. Zentzu horretan, kontua hain labor biltzea zilegi bada: Sebastian Lizaso tradizioetik moderniarantz doan bertsolaria da, eta Andoni Egaña, berriz, moderniatik abiatuta tradizioa doana.

Lizaso, 1986ko txapelduna, berezikoa talentuduna dugu zirian, azkarra erantzunetan eta arrazoibidean. Mendera ezina eztabaidan, Txirritaren eta Pello Errotaren oihartzun eguneratua dakar Lizasok.

Andoni Egaña, 1993, 1997, 2001 eta 2005ko txapelduna. Filologo, kultura-teknikari eta idazlea da; bere kasa trebatua bertsogintzan, Euzkitzeren antzera, baina eskolarteko txapelketetatik pasatu gabe hasia zuzenean nagusiekin. Teknikaren eta etorriaren (zein edonondik ekarriaren) jabe oso, trebe eta segurua. Amurizak urratutako bidetik abiatuta ondu du bere estilo berezia: sofistikatua forman, sakona arrazoietan, kultura hizkeran eta mundu-ezagueran, gozoa irrian. Bertsolari gazteagoentzat, modernitatearen erreferentzia.

Egaña eta Amets Arzallus

Alde batetik, teknika bikaina eta *plazagizontasun* karismatikoa; bestetik, aktibismo politikoa eta eredugarritasun soziala, Egañaren purutxoak gorabehera, 21. mendeko bertso-publikoan guztiz hegemonikoa den ideologiaren ikuspegitik.

Egañari, Euzkitzeri ez bezala, oso onbera *barkatu* zaio politikan (xuxen-xuxen) *kofradiakoa* ez izatea, ez baitago noski haren hegemoniarekiko lehian ere. Berdin, zer esanik ez, purutxoan bizio pribatua.

Formatu-esperimentuak aurrera doaz, moderniarene abangoardismo artistikoa ere integratu nahirik tradizio zaharberriuan. Bertso-eskoletan, Elkartearen zereginetan eta publikoan neskak perretxikoak aro egokian bezala hazten ari badira ere, bertan goxo jarraitzen dute bertsolariek artean ere beren gizon-munduan.

Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio

Cherchez la femme! Genero-ikuspegitik, (ia) hutsetik sortua da Lujanbio (Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidi aitzindari bakan, erreferentzia izatera iritsi gabe). Arte Ederretan lizentziaduna, tradizioko bertsokeratik hurbil, eta sentsibilitate berrikoa. Hark eta hain gora iritsi ez diren hainbat emakume bertsolari *arruntek* lortua dute dagoeneko behe-solairuko atea irekitzea, baina kristalezko sabaia hor dirau: 2018ko finalerako kanporaketan 42 bertsolaritik 12 baino ez ziren emakumeak, eta finalera heldu zirenen 8etatik, berriz, bat bakarra.

Gorago *Franko aldi* izen pean bildu ditugun urteetako txapelketetan bertsolari gailen (ia) guztiek parte hartu zuten, eta jarraitutasuna zen nagusi beste saioetatik txapelketara. Bertsolariek zein bertsozaleek mundu tradizional txiki homogeneoa konpartitzen zuten, eta, beraz, mundu homogeneo hori zuten bertsoetarako gai: euskara, bertsoa bera, eta erlijioa (politika, isilpean baino ez). Gaiak orokorrak edo topikoak

(sermoiak eta jolasak) izaten ziren, nahikoa, hala ere, garaiko entzuleen mundu ikuskerarekin eta erreferentziekin konektatzeko. Epaileak, berriz, orduko inteligentsia: apaizak eta letra-gizonak.

Franko ondoren izendatu ditugun bertso txapelketak bi garaitan banatuta azter daitezke erakunde antolatzaileei erreparatuta: Trantsizioko goraldia (1980-1982; antolatzaile: Euskaltzaindia) eta Auto-ospakuntzazko errituala (1986-2017; antolatzaile: Bertsozale Elkarte). Lehen bi txapelketetan, tradizio zaharreko bertsolariak eta molde berrikoak batera ari dira oraindik, hortik guk garaiari egotzitako izena. Politika pil-pilean zen gizartean, eta antifrankismoa eta abertzaletasuna erreferentzia konpartitu nagusi ziren bertsolarien eta publikoaren artean, oro har. Gaiek, apur bat sofistikatu eta hirirtuz doazela, bat(era) datoz gizartearen aldaketekin. Amuriza erreferentzia gailen, bertsoak harrigarriko iraultza biziko da edukiz eta, bereziki, formaz. Epaileak aurreko garaikoen modutsukoak dira, baina bertsolaritzarekin lotuagoak, nolabait.

1986ko Txapelketatik aurrera –*Auto-ospakuntzazko Liturgia* izendatu ditugun urteotan– atzean geratuz doaz tradizio zaharreko bertsolariak (2001an, Egaña izan zen zaharrena), eta gazteagotuz doa bertsolarien zein bertsozaleen adina. Patxi Goikolea maisuaren taldea eta Eskola Arteko Txapelketa dira, besteak beste, gaztetze horren hazia.

Intelektualago bilakatu da bertsozaintza, hala edukiz –informazio zabal eta gaurkotua, lanketa analitiko, askotariko teorizazio–nola formaz: prestakuntza espezifikoa, erretorika orokorretik haragoko literatura-tresneriaren erabilera (metaforak ez ezik, beste hainbat figura eta baliabide *ikasi*), neurri-doinu-errimen ugaltzea. Intelektualizazio horren poderioz, bertsoen garai bateko ahozkotasan biluzia (analfabetotasun literalarekin lotua, funtsean) idatzi jantziarekin hibridatu joan da gero eta gehiago, ezinbestean¹¹.

Lehen urteotan, politika eta harekin lotutako gaiak gailenduz doaz, eta haiekin, sektore ideologiko jakin baten guztizko hegemonia eta ia monopolioa. Horrela, aurretik aipatutako gaiei, gehituz doazkie sektore horrek darabiltzan gainerakoak. Beharbada, erabiltzen *ez* diren kontuak seinalatzea litzateke errazago. Politika formaletik –alderdi politiko(ar) en interesetatik– kanpo ere, bertso-munduko soziologiarekin batera doa aldatuz ideologia soziala, sektore jakin baten inguruan ideologikoki zuzentzat jotzen diren balioak nabarmenduz¹². Onintza Enbeitak honela erantzun zuen *Berrian* Gorka Erostarbek galdetu ziolarik ea Euskal

11 Batzuetan, interferentziak ere nabari dira. Besteak beste, sintoma modura, doinua kontuan hartzen ez duten errima eme ustelak, Garziak (2002: 423) 2001ko txapelketaren bueltan aipatuak. Batzuetan, bertsolaria “arbeleko bertso” modukoak *fabrikatzen* ari ote den su(s)ma daiteke, idatzi ahala okerrak zuzenduz totala.

12 Ikus Mouillot (2009: 8)

Herriko “*letra larriko gatazkak* bertsolaritzaren jarduna (gaietan, ikuspegi eta begiradetan) nola zedarritu duen”:

Gu (bertsolariok) ez gara bizi gertatzen diren gauzetatik urrun, eta nik uste dut euskal gatazkaren urte gogorretan hori islatzen zela, tentsioa bazegoela, eta bakoitzak ezin izan duela saihestu bere motxila. Aldi berean, gertatu da euskal gatazka *gatazka bakar batean* singularizatu dela.

Ezaguna da 1992ko Zarauzko Lizardi Sarietan Maialen Lujanbiok Joxerra Garziari eman zion erantzuna: Garziak “Nor zeran jakitea ez litzake txarra” puntua jarrita, Lujanbiok horrela erantzun zion: “Txirrita zaharrak zuen iloba bakarra/erakutsi nahi nuke hark zuen indarra/baina oraindik daukat ikasi beharra”. Metaforikoki bada ere, Lujanbiok bere burua aurkezterakoan egiten duen tranpa txikiak –ez baita, dakigunez, Txirrita zenaren familiarteko zuzena Lujanbio abizena eta jaioterria berbera izanagatik– balio lezake ulertzeko zein izan ziren Maialen bertsolari gaztearen erreferentziak bertsotan hasterakoan. Izan ere, Uxue Alberdik (2017) *Argian* egin zion elkarrizketan Lujanbiok berak esana da:

Ez [dut emakume izateak dakarren zapalkuntza] modu kontziente batean [bizi izan]. Beharbada, denborarekin eta a posteriori lotu dudan zerbait izan da. Euskaldun gisa dudan sentipena, kontzientzia eta sentitu dudan mina lehenagokoak dira. Ume-umetatik bizi izan dut hori. Emakume gisa bertso plazetan izan dudan bizipenen irakurketa geroago egin dut. Oso gerora ohartu naiz nahiko paraleloak direla, edo esplikatzeko orduan behintzat, oso ondo funtzionatzen dutela batak bestearen ordez.

Lujanbioren bertso-gintzarako iturriak ez ziren izan, beraz, ez beranduago helduko zitzaion feminismoaren teorizazioa, ez emakume izateak berekin zekarren oztopen kontzientzia. Lehen akuilu, bertso-keratza tradizionala izan zuen –maskulinoa, beraz–, eta, haren osagarri, bertso-eskolako trebakuntza.

Gema Lasartek (2016: 168) Emakunderen laguntzarekin zuzendutako ikerketaren emaitzek ere ondorio orokor bertsuak erakusten ditu: bertsolarien erreferentzia-markoa edo iruditeria aldatu egin da azken 25 urte honetan. 1980ko hamarkadako bertsolari-ereduak gizonezkoak ziren; Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidi, nahiz eta oholtzan ibili eta aitzindari gisa nabarmentzekoak izan, ez ziren heldu halako erreferente izatera.

Beraz, hemen azterbide izan ditugun urteotan, eta ia oraintsu arte, bertso-gintzak ez zituen aintzat hartu emakumeak subjektu aktibo –protagonista– edo erreferente kanoniko moduan. Aitzitik, zirigai pasibo

4. EMAKUMEEN PRESENTZIA, HISTORIAREN ITZULERA GISA (PLAZAK JANA ZION-ETA LEKUA)*

Ingeleseaz idatzitako bertso sinplifikatu bat inspirazio iturri izan genuen atal hau idazterakoan (Ariznabarreta 2018)

eta gizonen ardatzetik eraikitako maitasun objektu moduan ageri dira emakumeak gizonak egindako bertsotan: egon badago alderik erreferentziatua izatetik erreferentzia-sortzaile izatera. Aise datozkigu gogora Xepelarren “Andre txarraren bentajak”, edo Txirritaren “Neskazar bat tentatzen” moduko bertsokak; baina, dakigunez, ez dira horiek ale bakar. Bertsogintzaren meta-narratiba tradizionalak, izan ere, kanonetik aldentuta irudikatu zuten emakumea hogeitabat garren mendearen hasierara arte. Genero-ikuspuntua gizartea –eta, harekin batera, bertsolaritzaren eremua (ordena horretan, ez alderantziz)– beretuz joan zen arte ez zen azaleratu, besteak beste, gaur egun egia historikotzat aitortzen dena: alegia, emakumeei zor zaiela Erdiaroko lehen bertso-praktika dokumentatua. Horrela, ahozketasunaren teorizazio modernoek historiaren sakonetik berragerrarazi dizkigute egungo dama bertsolariak –gazte eta dotoreak–, eta haien oholtzaraztea itzulera baten kronika gisa azaldu.

4.1 Jatorrian, emakumeak ere ala haiek bakarrik bertsolari?

Ted Gioia historialari, musika-ikertzaile eta unibertsitateko irakasleak *Love Songs: the Hidden History* liburuan maitasun-kantez dioenak arrasto bat eman diezaguke, agian, beste urrats bat egiteko emakume bertsolarien bilakabideari buruzko gogoetan. Gioiaren ikerketen arabera, emakumeei zor zaizkie maitasun-kanten lehen praktika lirikoak edo performanceak, eta berdin historian zehar kantaera horri egindako ekarpen nagusiak ere. Bertsolaritzan gertatu denaren antzera, ordea, kulturarekin lotutako botere-indarrek inboluzioa ekarri zuten Erdiarotik aurrera, eta: “deabruaren kantatzat hartzen ziren bekatarien praktika horiek, boteredunen –eta, beraz, moral finkatuaren– musika-banda onetsi eta legitimo bilakatu ziren gizonen ahotan.” Amodiozko kantuek ere, bertsogintzan gertatu zen antzera, ez zuten gizartean ikusgarritasunik izan harik eta botere espazioetan onartuak izan ziren arte.

Erraz egin daiteke jauzi bat gehiago ere Gioiaren logikari jarraituz, eta gizonak egindako bertsolaritza tradizionalaren prestigio falta ere horri egotzi diezaiokegu –edo, gurean, euskararen prestigio faltari gehitu–: alegia, gizonak emakumeak abiarazitako praktika batera moldatu zutela haien kantaera eta, genero aldaketa horren kontzientzia historikoaren erruz, praktika horrek kritikak eta debekuak ekarri zituela. Horrela, hemen aztergai dugun bertsogintzaren prestigio paradigmaticoaren lehen urratsak, kontraesankorra badirudi ere, oinarrian bertsogintza emakumeen praktika zela ahaztearekin batera helduko zen.

Hona Gioiaren hitzak, aipatu dugun liburuaren inguruko elkarrizketa batean:

Yet close study of the cultural evolution of romantic music reveals that women contributed most of the key innovations in the love song. Even when men took most of the credit –which often happened– they frequently constructed their songs by imitating the earlier works of female singers. To some extent, the history of the love song can be described as the process of men learning to sing as if they were women. In many times and places, this gender shift has led to criticism, and sometimes prohibition.

Gioiak bistaratu nahi izan duen historia ezkutua ez dagokio, noski, ez maitasun-kantei bakarrik, eta ez emakumeen rolari bakarrik ere. Orokorra da noski joera: zapalduak sorturiko agerraldi *basatiak* denborarekin haien menderatzaileek beren ondare kultural *dotorearen* parte bihurtzea, jatorrizko protagonistei lekua kendurik.

4.2 Emakume bertsolariak erreferentzialtasunerantz

Gogora ekarri nahi izan dugun azken urteotako emakume bertsolarien (ber)agerpen horrek, Maialen Lujanbioren figura horren sinekdoke dela, aldi –eta oztopo– desberdinak bizi (izan) ditu: Miren Artetxek azken txapelketan kristalezko sabaiari egindako aipamena –gerora hainbestetan errepikatua– ez zen hitz-joko hutsa izan, bistan da. Guk hemen egin genezakeen baino hobeto jasota gelditu dira oztopo horiek protagonisten beren elkarrizketa ugarietan zein gaiari hertsiki lotu zaizkion hainbat ikerketatan¹³. Gure helburuetarako, nahikoa da hemen desafio eta lorpen horien laburpen bat egitea.

Emakumeen ikusgarritasun eta erreferentzialtasun ezak, ikono bakanen eta sinbolikoen errepresentazioari bide eman zion lehenengo urteetan. Horrela, Maialen Lujanbioren 2009ko txapela “emakume bertsolari guztien” garaipentzat hartu zuten askok, eta berdin, Estitxu Arozenaren, Ainhoa Agirreazaldegiren zein Uxue Alberdiren, hiru aitzindari-ikono aipatzearen, oholtzaratze bakoitza emakume (bertsozale) guztien ahalduentzat. Baina ordezkari hori, ez bada hartu nahi egungo emakumeen zapalkuntzaren isla adierazgarritzat/nabarmentzat, ulertuko da behintzat ikonoaren (bertsolariaren) zama gehituztat bizi daitekeen *misio* gisa. Ideia edo talde baten ikur izateak berekin dakartza betetzen zail diren kanpo-eskakizunak, auto-exigentziak, mugak eta zedarritze pertsonalak: *norberetik norbestera* daramaten ariketak dira horrelakoak. Artista modura ere ariketa horrek trabak sortzen zizkiola aitortu zuen Maialen Lujanbiok (2007)

Inoren ordezkari izatea kreatiboki ez da batere interesgarria, sorkuntzarako traba da. Hobe da aukera egotea, eta ez bat denen ordezkari.

192 ¹³ Gaiari lotutako bibliografia osatua nahi duenak, araka beza Lasarte (et al.)-en ikerketako erreferentzien atala.

Beraz, aniztasunean jarria dute jomuga bertsolariet emakumeen errepresentazioari dagokionez ere. Bide horretan, bertsolari asko feminismoaren teorizazioa biltzeaz gainera, bertsolari emakumeek beren plaza propioak eratu dituzte han eta hemen; askatasunerako abagune izan nahi duten eremuak, hain zuzen. Lehenago, 2009. urtean, Bertsozale Elkartek genero-atala gehitu zion elkartearen egiturari, eta bertso-eskoletako zein bertso-udalekuetako curriculumek sexu biologikoa gainditzen duten emozio eta identitateen lanketa abiarazi dute. Hala ere, hegemonia maskulinoa nabarmena eta kopuruetan emakumeen presentzia oraindik eskasa delarik, bada zenbakiez besteko auzirik ere ikusten duenik. Jon Maia bertsolariak, generoaren auzia estrukturala dela aipatu ondoren, honako gogoeta hau egin zion *Berrian* Gorka Erostarberi:¹⁴

Nik ez nuke sailkapen bat egingo sexuka; mutil edo gizonezko batek izan dezake sentsibilitate eta kontzientziario handia, adibidez, eta emakumezko batek eduki dezake ez hain garatua. Plazan dauden sei edo zortzi bertsolari horietan ez da zakilaren eta aluaren arabera neurtu behar generoaren presentzia. Neurtzen hasiko bagina pertsona bakoitzaren jarrera, sentsibilitatea, ez litzateke hain sinplea, emakumezko eta gizonezko izatea ez den eran.

5. BERTSOLARITZA MODERNOA PUNTARENGO IDEOLOGIARA BIDEAN

Azterketa kuantitatiboak eta xeheagoak alde batera utzirik, prozesuaren panoramika orokor bat irudika daiteke. Azkenaldiko bertsolaritzaren euskarri guztiz nagusia Bertsozale Elkartea eta bertso-eskolen sarea dira. Bi-biek ere merezi dute azterketa arretatsu bat beren sorrera, bilakabide eta izaeraz, baina jakintzat joko dugu zer diren eta zertan ari diren elkarrekin loturiko bi instantzia horiek, oraingo bertsolaritzaren motorra direnak. Izen bat behar eta, Bertsoguna deituko diogu hemen.

Bertsoguna, bada,aldi berean joan da, bere gizarte-osaerarengatik berarengatik, gaztetuz eta modernotuz. Horrekin batera, estilo (pertsonal zein performatibo) ugariko aniztasun bat ageri da bertsolarien artean; betiere bertsolari-rolak markatzen duen tonu zahar-berrian, eta bertso-giro hegemonikoko ortodoxia ideologikoak ezarritako mugen barruan. Bilakabide horretan, emakumeek beren lekua irabaziz joatea izan da alderik nabarmenena eta ziurrenik garrantzitsuena. Erakunde eta jarduera misoginoek ondo dakite gauzek ez dutela lehenean iraungo behin emakumei *sarbide emanez* gero. Horrengatik, emakumeek *hartu* egin behar dute sarbidea, eta, sarritan, hainbat ate eta kate hautsi edo bota behar izaten dute horretarako.

¹⁴ Erostarbe (2018ko Otsailak 11).

Borroka edo gatazka hori larria gerta zitekeen bertsolaritzan, baldin eta kontuan hartzen bada nondik eta zertatik abiatua zen aurreko garaietan, hots, emakumearen estereotipo tradizional guztiez jositako mundu batetik. Zorionez, garai berrietan beren esparru ideologikoan nagusituz zihoazen ikuspegi eta balioak bere eginak zituen jada Bertsoguneko gazteria modernoak, eta garai berrietan eredugarri izateak berekin zekarren uko egitea matxismoari, misoginiari eta homofobiari, eta are bat etortzea feminismoarekin: haren diskurtso orokorrarekin bederen, gizartean bezala. Hala, berez bezala joan da pixkanaka generoz inklusiboa bilakatuz eta, berrikuntzaren nabarmentasunetik, generori buruzko diskurtsoa bera ere landuz.

Aipamen berezia merezi du beste kontu (delikatu) batek ere. Izan ere, euskal inteligentsia bertsolaritzara hurbiltzean, hura *dotoretu* eta prestigiatu nahi zuen, baina, denborak eta historiak aurrera egin ahala, hain ere dotore-prestigiatu da bertsolana, ezen ofizio hori baita, itxura batean, bestelako lan intelektual eta artistikoetan leku gailena izateko pasaporterik onena. Nabarmena da, alde horretatik, txapeldunen bertsoz landako ibilbidea: Amuriza, Egaña, Arzalluz, Lujanbio... Halako izen handirik gabeko beste hainbaten kasuan ere luzea da, besteak beste, kazetaritzan Basarriren lekukoa hartu dutenen zerrenda, Euzkitzeren omnipresentziatik bazterreneko zutabegile koxkorreraino. Badirudi bertsolariari egozten zaizkion gaitasun eta dohainak ia edozertan direla Baliagarri. Alde batera, ez da harritzekoa, auzoko lurraldeetan ere mediatikotasuna izaten baita eskalan goratzeko biderik laburren, azkarren eta seguruen...

Unibertsitatean ere, badirudi aztergai behinenetariko bat bihurtzen ari dela azken boladan bertsolaritza, denarekin eta edozerekin eta edozein modutan loturik, zeinahi arlotan. Badirudi hor ere zirkulu bat itxi dela: olerkariak, Lizardi, Lauaxeta eta gisakoak urrun-zailegi zitzaizkion herri xumeari, eta bertsolariak poetatzen saiatu zen euskal inteligentsia zaharra; azkenerako, horra bertsolaritza berriak akademia bera ere bere zerbitzura jarri, euskal (kultura) labela bereganatzeko modu bakarra edo neke gutxienezkoa delakoan, nonbait.

Behin horretara ezkerro, espero izatekoa zenez, halako lehia bat ere joan da piztuz, ea nork aurrerago egin Bertsoguneko ideologia berrii horren bidean, eta nondik eta nola. Generoaren diskurtsoak emakumearen presentzia eta aukera-berdintasuna erreibindikatzetik harago doazenez noski, generoaren eta sexu-rolen anbiguotasuna ere hizpide dira dagoeneko bertso-plazan. Hona hemen Maialen Lujanbioren ale sonatu baten bi puntuok lekuko:

gizona eta andrea nauzu,
ez andrea ez gizona;
nire inon ez egon nahia ote
da zure ezinegona

Baliteke plazako entzule guztiak ez etortzea bat ikuspegi eta diskurtso berriekin (edo, ziurkiago, tradizionalagoen artean, tutik ez ulertzea edo bost axola izatea, “ezinegon” erretoriko hori gorabehera), baina Bertsogunearen hegemoniak bere txaloberotasunarekin estaliko luke edozein bazter-muzin¹⁵.

Aspaldi aztertu zuen soziologiak talde-babesak erritualetan sorrarazten duen *ethosak* eta agendak nola baldintzatzen dituzten banakoen portaerak. Durkheim soziologo frantsesak Erdialdeko Australiako aborigenak aztertzean, sinbolo kulturalen izaera sakratuaz jabetu zen, eta horrenbestez ulertu aitzakia sinboliko-formalak baino ez zirela totemak natiboen erritualetan: gurtu, beren burua eta beren talde-egitura gurtzen zutela aborigenek elkarrengana biltzean.

Mistizismo merkea alde batera utzirik, bertsoa ere ez ote da (espirituz bederen) elkarrengana biltzeko halako talde-tresna bat? Baliatuko ote zaigu oraindik aurrerantzean, aho-estalkiak eta urrun-neurriak gorabehera?

15 Denak esatearren, bada hor bertso-plazaren ezaugarri berezi bat, azterralditxo bat eskatu-ko lukeena: *txalo beti eta txistu inoiz ez lege idatzi gabea*. Zer da?: ez al da sekula bertso txarrak edo itsusirik plazaratzen? Aurretik kendu zaie mikrofonoa arrazoi *desegokiak* botako lituzketenei?... Alde horretatik, analogia, kirolekin ez, baizik erritualetan litzateke. Bertso-larien arteko lehia talde-performanceak estaltzen du: guztiak txapeldun txalodun, publikoa barne.

Aulestia, Gorka. *Improvisational Poetry from the Basque Country*. The Basque series. University of Nevada Press; Reno, 1995.

Ariznabarreta, Larraitz. "The Presence of Women Bertsolari's as a Kind of Historical Comeback". *Female Improvisational Poets*. Inaki Arrieta Baro eta Xabier Irujo (Eds). Center for Basque Studies Press, University of Nevada, Reno, 2018.

Armistead, Samuel G. And Joseba Zulaika (Eds.). *Voicing the Moment. Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Center for Basque Studies Conference Papers Series, #3, University of Nevada, Reno, 2005.

Eizagirre, Ixiar eta Estitxu Eizagirre. "Eskola falta sumatzeko ere eskola behar da." *Argia*: (2001ko Apirilak 1). Hemen eskuragarri: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1802/manuel-lasarte>

Erostarbe, Gorka. "Bertsoaren barruko edukia erabat aldatu da". *Berria*: (2018ko Otsailak 11). Hemen eskuragarri: https://www.berria.eus/albisteak/148819/bertsoaren_barruko_edukia_erabat_aldatu_da.htm

Durkheim, Emile. *The Elementary Forms of the Religious Life*, Free Press, New York, 1965/1912.

Garzia, Joxerra. "Finaleko matazan", *Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Andoain, 2002: 377-425.

Garzia, Joxerra. "History of Improvised *Bertsolaritza*: A Proposal". *Oral Tradition* 22/2, 2007a: 77-115.

Garzia, Joxerra. "Toward True Diversity in Frame of Reference". *Oral Tradition* 22/2, 2007b: 143-156.

Gioia, Ted. *Love Songs: The Hidden History*. Oxford University Press, New York, 2015.

Gioia, Ted. "The Love Song and its Complex Gender History." Oxford University Press' Academic Insights for the Thinking World. OUP Blog. 2015ko otsailaren 12an. Hemen eskuragarri: <https://blog.oup.com/2015/02/love-song-complex-gender-history/>

Larrañaga, Jexux. "The Bertsolariak Championship as Competitive Game and deep Play." *BOGA: Basque Studies Consortium Journal*. Volume 4, Iss 1, Article 2. (Urria 2016): 1-16. Hemen eskuragarri: <http://scholarworks.boisestate.edu/boga/vol4/iss1/2>

Lasarte, Gema (et.al.) *Emakume bertsolariak: ahanzturatik diskurtso propiora. Hegemonikoki gizonezkoa izan den eremura emakumeen hurbilketa ahalbideratu duten iniziatiba eta faktoreen azterketa*. Emakunde. Vitoria - Gasteiz, 2016. Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas/2/eu_def/adjuntos/beca.2015.2.emakume_bertsolariak.pdf

196 Mouillot, François. "Resisting Poems: Expressions of Dissent and He-

gemony in Modern Basque Bertsolaritza". *Critical Studies in Improvisation/Études critiques en improvisation*, Vol5, No1, 2009:1-12.

Paya, Xabier. *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia. Euskal antologiak saila*. Etxepare Euskal Institutua, Donostia-San Sebastián, 2013.

Perurena, Patziku. "Basarri-rekin saiheska bertsolaritzari buruz", *Mazantini-1*, 1991. Hemen eskuragarri: <http://andima.armiarma.eus/maza/maza0106.htm>

Retortillo, Alfredo eta Xabier Aierdi. "A Sociological Study of Sung, Extemporaneous Verse-Making in Basque." *Oral Tradition*, 22/2, 2007: 13-31.

Sarasua, Jon. "Present-Day Bertsolaritza: Reality and Challenges." *Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Armistead and Zulaika (Eds.). Center for Basque Studies Conference Papers Series, #3, University of Nevada, Reno, 2005: 305-321.

Sarasua, Jon. "Social Features of Bertsolaritza". *Oral Tradition* 22/2, 2007: 33-46.

Turner, Jonathan H. and Jan E. Stets. *The Sociology of Emotions*. Cambridge University Press; New York, 2005.

White, Linda. "Orality and Basque Nationalism: Dancing with the Devil or Waltzing into the Future." *Oral Tradition* 16/1, 2005: 3-28.

Zavala, Antonio. "Prologue." *Voicing the Moment. Improvised Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Armistead and Zulaika (Eds.). Center for Basque Studies Conference Papers Series, #3, University of Nevada, Reno, 2005: 15-26.

Zulaika, Joseba. "*Bertsolariak* and Writers: An old Tale of Fathers and Sons". *Voicing the Moment. Improvised Improvised Oral Poetry and Basque Tradition*. Armistead and Zulaika (Eds.). Center for Basque Studies Conference Papers Series, #3, University of Nevada, Reno, 2005: 229-244.

Zulaika, Joseba. *Basque Violence Metaphor and Sacrament*. The Basque Series. University of Nevada Press; Reno, 1988.